**ORGANOA:** Udalbatzar Txit Garaia
**ÓRGANO:** Excmo. Ayuntamiento Pleno

**BATZARRALDIA:** Ohikoa
**SESIÓN:** Ordinaria

**TOKIA:** Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa
**LUGAR:** Salón de Plenos de la Casa Consistorial

**EGUNA:** 2021eko ekainak 24
**FECHA:** 24 de junio de 2021

**HASIERA ORDUA:** 09:30
**HORA DE COMIENZO**: 09:30 h

**LEHENDAKARIA:** Eneko Goia Laso jauna, Donostiako Udal Txit Garaiko Alkatea.
**PRESIDE:** Don Eneko Goia Laso, Alcalde del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián.

**ETORRITAKOAK:** Alkateorde jaun-andreak:
**ASISTEN:** Los/las señores/as Tenientes de Alcalde:

Doña Miren Nekane Arzallus Iturriza andrea
Doña Marisol Garmendia Beloqui andrea
Doña Duñike Agirrezabalaga Ugarte andrea
Don Juan Ramón Viles Mitxelena jauna

Eta ondorengo zinegotzi jaun-andreak:
Y los/las señores concejales/as:

Doña Pilar Arana Pérez andrea
Don Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga jauna
Doña Aitziber San Román Abete andrea
Don Martin Ibabe Eceiza jauna
Don Jon Insausti Maisterrena jauna
Doña Mª. Jesús Idoeta Madariaga andrea
Doña Miren Jaione Hervás Sáez de Arregi andrea
Doña Reyes Carrere Zabala andrea
Don Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jauna
Doña Olaia Duarte López andrea
Don Ricardo Burutaran Ferre jauna

Don Zigor Etxeburua Urbizu jauna
Don Miguel Ángel Díez Bustos jauna
Doña Cristina Lagé Manich andrea
Doña Ane Oyarbide Ochoa andrea
Don Borja Corominas Fisas jauna
Don Mikel Lezama Zubeldia jauna
Don Jorge Mota Iglesias jauna
Doña Aitzole Araneta Zinkunegi andrea
Doña Haizea Garay Gallastegui andrea
Doña Marta Huarte Paño andrea

**EZ DA ETORRI:** Ondorengo zinegotzi andrea:
**NO ASISTE:** La señora concejala:
Doña Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andrea

**IDAZKARIA:** Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga jauna, Donostiako Udal Txit Garaiko Udalbatzarreko idazkari nagusia.
**SECRETARIO:** Don Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Secretario General del Pleno del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián.

**KONTU-HARTZAILEA:** Julian Ortiz Arruabarrena jauna, Udal Kontuhartzaile Nagusia.
**INTERVENTOR:** Don Julián Ortiz Arruabarrena, Interventor General Municipal.

---------------

| **LABURPENA** | **Zk/ Nº** | **SUMARIO** | **Pág Orr.** |
|---|---|---|---|
| Gai Zerrendatik Kanpoko 1. gaia presazkotzat jotzea. | | Tratamiento de Urgencia del asunto n.º 1 Fuera del Orden del Día del Pleno. | 4 |
| Gai Zerrendatik Kanpoko 2. gaia presazkotzat jotzea. | | Tratamiento de Urgencia del asunto n.º 2 Fuera del Orden del Día del Pleno. | 5 |
| 2021eko apirilaren 29an izandako bileraren akta zuzentzea eta 2021eko maiatzaren 27an izandako bileren akta onartzea, ontzat joz gero. | 1 | Rectificación del acta de la sesión celebrada el 29 de abril de 2021 y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 27 de mayo de 2021. | 5 |
| Alkatearen ebazpenen kontu ematea. | 2 | Dar cuenta de Resoluciones de | 6 |

| Euskara | Zbk. | Castellano | Pág. |
|---|---|---|---|
| | | Alcaldía. | |
| Bozeramaileen Batzordean onartutako erakunde adierazpenen berri ematea. | 3 | Dar cuenta de las Declaraciones Institucionales aprobadas en la Junta de Portavoces. | 9 |
| **ERABAKI ZATIA** | | **PARTE RESOLUTIVA** | |
| **LURRALDE GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEA** | | **COMISIÓN DE DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO** | |
| Zarata eta bibrazioek sortutako kutsadura akustikoari aurre egiteko udalaren jokabidea arautzen duen Ordenantza hasiera baten onartzea. | 4 | Aprobación inicial de la Ordenanza reguladora de la actuación municipal frente a la contaminación acústica por ruidos y vibraciones. | 11 |
| **KONTUEN BATZORDEA** | | **COMISIÓN DE CUENTAS** | |
| 2020ko Kontu Orokorraren onarpena. | 5 | Aprobación de la Cuenta General 2020. | 21 |
| **INFORMAZIO, SUSTAPEN ETA KONTROLA** | **II** | **INFORMACIÓN, IMPULSO Y CONTROL** | |
| **MOZIO ARRUNTAK** | **II.1** | **MOCIONES ORDINARIAS** | |
| Mozio arrunta, EH BILDU taldeak aurkeztua, Topoaren Altzako geltokiko oztopo arkitektonikoak direla eta. | 6 | Moción ordinaria, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre las barreras arquitectónicas de la estación del Topo de Altza. | 24 |
| Mozio arrunta, EH BILDU taldeak aurkeztua, Maria Inmaculada ikastetxearen itxiera dela eta. | 7 | Moción ordinaria, presentada por el Grupo EH BILDU, en relación al cierre del colegio María Inmaculada. | 27 |
| Mozio arrunta, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Donostian DomusVi taldearen egoitzen egoerari buruzkoa. | 8 | Moción ordinaria, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre la situación de las residencias del Grupo DomusVi en Donostia | 30 |
| Mozio arrunta, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Añorgako bidegorria mozteari buruzkoa. | 9 | Moción ordinaria, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre el corte del bidegorri de Añorga. | 35 |
| **KONTROL MOZIOAK** | **II.2** | **MOCIONES DE CONTROL** | 37 |

---------------

**DONOSTIAKO UDALBATZAR TXIT GARAIAREN OHIKO OSOKO BILKURA HASITAKOTZAT JOTZEN DA.**

**SE DECLARA ABIERTA LA SESIÓN PLENARIA ORDINARIA DEL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN.**

---------------

**GAI ZERRENDAKO AZTERGAIAK BOZKATZERAKOAN FALTA ZIREN ZINEGOTZIAK:**

**- REYES CARRERE ZABALA ANDREA (EH BILDU), 6. GAIAREN BOZKETAN.**

**- RICARDO BURUTARAN FERRE JAUNA (EH BILDU), 5. KONTROL MOZIOAREN BOZKETAN.**

**AUSENCIAS DE LOS/LAS SRES./SRAS. CORPORATIVOS A LA VOTACIÓN DE LOS DIFERENTES PUNTOS DEL ORDEN DEL DÍA:**

**- D.ª REYES CARRERE ZABALA (EH BILDU), EN LA VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 6.**

**- D. RICARDO BURUTARAN FERRÉ (EH BILDU), EN LA VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 5.**

---------------

**Gai Zerrendatik Kanpoko 1. gaia presazkotzat jotzea.**

**Tratamiento de Urgencia del asunto n.º 1 Fuera del Orden del Día del Pleno.**

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak parte hartu dute, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Intervienen los/la señores/a D. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Borja Corominas Fisas y D. Jon Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**Gai Zerrendatik Kanpoko 2. gaia presazkotzat jotzea.**

**Tratamiento de Urgencia del asunto n.º 2 Fuera del Orden del Día del Pleno.**

Haizea Garay Gallastegui andreak, Borja Corominas Fisas jaunak, Marisol Garmendia Beloqui andreak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak parte hartu dute, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Intervienen los/las señores/as D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Borja Corominas Fisas, D.ª Marisol Garmendia Beloqui, D. Ricardo Burutaran Ferré y D. Jon Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**1. 2021eko apirilaren 29an izandako bileraren akta zuzentzea eta 2021eko maiatzaren 27an izandako bileren akta onartzea, ontzat joz gero.**

**1. Rectificación del acta de la sesión celebrada el 29 de abril de 2021 y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 27 de mayo de 2021.**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUAK.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADAS.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**2. Alkatearen ebazpenen kontu ematea.**

**2.1.**

“ALKATETZAREN DEKRETUA, ESKUMENA DUEN ZINEGOTZIGO DELEGATUARI AGINTZEN DIO BEHARREZKOAK DIREN NEURRIAK HAR DITZALA 2021EKO BAINU-DENBORALDIA ETA HONDARTZA-ZERBITZUAK HOBETO GAUZATZEKO.

Alarma-egoera deklaratu zuen martxoaren 14ko 463/2020 Dekretuaren arabera, administrazio bakoitzak bere zerbitzuen ohiko kudeaketan indarrean dagoen legeriak ematen dizkion eskumenak gorde zituen, alarma-egoeraren ondorioetarako agintaritza eskudunaren zuzeneko aginduen esparruan beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko.

2020ko maiatzaren 29 ko datarekin, data bereko dekretuaren bitartez organu honek erabaki zuen bertan behera uztea Donostiako hondartzen erabilera eta aprobetxamenduari buruzko Udal Ordenantzaren 5. artikuluaren lehenengo apartatuko bigarren paragrafoa, honakoa diona:

“Ordenantza honen ondorioetarako, bainu denboralditzat jotzen da urte bakoitzeko ekainaren 1etik irailaren 30era bitarteko aldia”

Horri dagokionez, Hiri Zerbitzuen buruak honako hau adierazi du 2021ko maiatzaren 17an egindako txostenean:

"Gaur egun COVID-19 delakoa dagoenez, prebentzio-neurriak hartu behar dira

**2. Dar cuenta de Resoluciones de Alcaldía.**

**2.1**

“DECRETO DE ALCALDIA POR LA QUE SE ENCARGA A LA CONCEJALÍA DELEGADA COMPETENTE LA ADOPCIÓN DE LAS MEDIDAS NECESARIAS PARA LA EJECUCIÓN MÁS ADECUADA DE LA TEMPORADA DE BAÑO 2021 Y LOS SERVICIOS DE PLAYA.

De conformidad con el Decreto 463/2020 de 14 de marzo, por el que se declaró el estado de Alarma, cada administración conservó las competencias que le otorga la legislación vigente en la gestión ordinaria de sus servicios para adoptar las medidas que estime necesarias en el marco de las órdenes directas de la autoridad competente a los efectos del estado de alarma.

Con fecha de 29 de mayo de 2020, este órgano por Decreto de misma fecha suspendió el segundo párrafo del apartado 1 del artículo 5 de la Ordenanza municipal del uso y aprovechamiento de las playas de Donostia-San sebastián que indica que:

“A efectos de la presente Ordenanza, se entiende por «temporada de baño» el período comprendido entre el día 1 de junio y el 30 de setiembre de cada año.”

Al respecto y con fecha de 17 de mayo de 2021 el Jefe de Servicios Urbanos ha indicado en su informe que:

“La presencia actual del COVID-19 provoca que se tengan que tomar medidas de prevención para

hondartzen inguruan ez zabaltzeko.

2021eko maiatzaren 13an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak bilera bat egin zuen hondartzetako Lurralde Mahaiarekin, eta bertan erabaki zen 2021eko hondartza-denboraldia ekainaren 15etik irailaren 15era bitartekoa izatea. Zerbitzu honek bat egiten du Hondartzen Lurralde Mahaiarekin, eta egokitzat jotzen du bainu-denboraldiaren hasiera-data ekainaren 15era aldatzea. Halaber, uste du, dagoen kontrola eta 2020ko denboraldian hartutako esperientzia kontuan hartuta, bainu-denboraldiaren amaiera irailaren 30a izan beharko litzatekeela."

Denboraldiaren hasierak zuzenean eragiten dio Salbamendu eta Sorospen kontratuari; horregatik, kontratu hori 2021eko ekainaren 15ean hastea eta 2021eko udako denboraldian irailaren 30era arte lan egitea proposatzen da.

Gainera, Zerbitzu honek uste du ez liratekeela hondartzetako zerbitzu hauek eman behar:
- Parasolak
- Gabarroiak

Horren arrazoia da bi zerbitzu horietan kontrolpean egotea oso zaila den egoerak gerta daitezkeela garatzen diren inguruneetan, erabiltzaile kopuru handiarekin. "

2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 88. artikuluaren 6. apartatua aintzat hartuta, txosten hori ebazpenaren arrazoi gisa onartu da, ebazpenaren testuari erantsi baitzaio, eta beharrezkotzat jotzen da dagokion Zinegotzi delegaritzari 2021ko bainu denboraldia egokien burutzeko neurriak eta hondartzetako zerbitzuak egikaritzeko neurria hartzea agintzea.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen

evitar su propagación en el entorno de las playas.

Con fecha 13 de mayo de 2021 el Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa celebró una reunión con la Mesa Territorial de Playas en la cual se acordó que la temporada de playas en el año 2021 sea del 15 de junio al 15 de setiembre. Este Servicio estando en consonancia con la Mesa Territorial de Playas, considera que es adecuado variar la fecha de comienzo de la temporada de baño al 15 de junio, así mismo considera que dado el control existente y la experiencia adquirida en la temporada 2020, la finalización de la temporada de baño debiera ser el 30 de setiembre.

El comienzo de la temporada afecta directamente al contrato de Salvamento y Socorrismo, por lo cual se propone que dicho contrato se inicie el 15 de junio de 2021 y preste sus servicio durante la temporada de verano de 2021 hasta el 30 de setiembre.

Además este Servicio considera que no debieran darse los siguientes Servicios de Playas:
- Parasoles
- Gabarrones

El motivo es que en estos dos servicios se pueden dar situaciones de muy difícil control en los entornos en que se desarrollan, con una gran concentración de usuarios."

A la vista de lo establecido en el apartado 6 del art. 88 de la ley 39/2015, de 1 de octubre, se acepta dicho informe, como motivación de la resolución, al incorporarse al texto de la misma, se advierte necesaria encargar a la Concejalía Delegada competente la adopción de las medidas necesarias para la ejecución más adecuada de la temporada de baño 2021 y los servicios de playa.

El artículo 124 de la Ley de Bases de Régimen

Legearen 124. artikuluak alkateari ematen dio udal politika, gobernua eta administrazioa zuzentzeko ahalmena (4. apartatuaren b) letra), bai eta ezohiko eta presazko kasuetan behar diren neurri egokiak hartzea ere, osoko bilkurari berehala horren berri emanda.

Hori dela eta, indarrean dagoen legeriak emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DU

BAKARRA.- Dagokion Zinegotzi delegaritzari 2021ko bainu denboraldia egokien burutzeko neurriak eta hondartzetako zerbitzuak egikaritzeko neurria hartzea agintzea.

Local atribuye al Alcalde la dirección de la política, el gobierno y la administración municipal (letra b) del apartado 4) y la adopción de las medidas necesarias y adecuadas en casos de extraordinaria y urgente necesidad, dando cuenta inmediatamente al Pleno.

Por ello, en uso de las atribuciones conferidas por la legislación vigente

RESUELVE

ÚNICO.-Encargar a la Concejalía Delegada competente la adopción de las medidas necesarias para la ejecución más adecuada de la temporada de baño 2021 y los servicios de playa.

Donostia, 2021eko maiatzaren 18a."

ALKATEA

Eneko Goia Lasa

**2.2.**

“ALKATEAREN EBAZPENA

Udalbatzak, 2019ko ekainaren 20an egin zuen bilera ohiz kanpokoan, legealdi honetan aldi baterako langileentzat gordeta izango diren lanpostuen zerrenda onetsi zuen. Zerrenda horretan da, besteak beste, PSE-EE taldearen bozeramaileren aholkulari lanpostua. Juan Carlos Lopez Pascual jaunak betetzen du postu hori, baina aldi baterako kanpoan da hura orain.

2021/04/28an, Aitor Silva Hernández jauna PSE-EE taldeko bozeramailearen aholkulari izendatu zuten, Juan Carlos López Pascual jauna ordezkatzeko.

2021/06/02an, Donostiako Sozialistak Udal

**2.2.**

“RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA

El Ayuntamiento Pleno, en sesión extraordinaria celebrada el día 20 de junio de 2019, aprobó la relación de puestos de trabajo reservados a personal eventual para el presente mandato, entre los que se encuentra el puesto de Asesor/a de Portavoz del Grupo PSE-EE, que lo ocupa D. Juan Carlos López Pascual, temporalmente ausente.

Con fecha 28/04/2021, D. Aitor Silva Hernández fue nombrado Asesor de Portavoz del Grupo PSE-EE, para sustituir a D. Juan Carlos López Pascual.

Con fecha 02/06/2021, la Portavoz del Grupo

Taldeko bozeramaileak jakinarazi zuen Juan Carlos López Pascual jauna 2021/06/07an bere lanpostura itzuliko dela, eta, beraz, Aitor Silva Hernández jauna kargutik kendu behar dela, ordura arte haren ordezkoa baitzen.

Municipal Socialistas Donostiarras, comunica que D. Juan Carlos López Pascual tiene previsto reincorporarse a su puesto el próximo 07/06/2021, por lo que, procede el cese de D. Aitor Silva Hernández que hasta ese momento le sustituye.

Toki Oinarrien Araubidearen 7/1985 Legearen 104. artikuluan xedatutakoa kontuan hartu dut.

Considerando lo dispuesto en el artículo 104 de la Ley 7/1985 de Bases de Régimen Local.

Horien horrela, honako ebazpen hau onartu dut:

Visto lo que antecede, adoptó la siguiente

EBAZPENA

RESOLUCIÓN

LEHENA.- Aitor Silva Hernández jauna PSE-EE taldeko Bozeramailearen aholkulari kargutik kentzea, Juan Carlos López Pascual jauna bere lanpostura itzultzearen ondorioz.

PRIMERO.- Cesar a D. Aitor Silva Hernández como Asesor de Portavoz del Grupo PSE-EE, como consecuencia de la reincorporación de D. Juan Carlos López Pascual a su puesto de trabajo.

BIGARRENA- Ebazpen honek 2021/06/07an izango ditu ondorioak.

SEGUNDO.- La presente resolución surtirá efectos con fecha 07/06/2021.

HIRUGARRENA.- Ebazpen honen berri ematea udalbatzari, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

TERCERO.- Dar cuenta de la presente Resolución al Ayuntamiento Pleno y proceder a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Donostian, 2021eko ekainaren 3an"

Eneko Goia Laso
ALKATEA”

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**ENTERADO.**

---------------

**3. Bozeramaileen Batzordean onartutako erakunde adierazpenen berri ematea.**

**3. Dar cuenta de las Declaraciones Institucionales aprobadas en la Junta de Portavoces.**

"Udalbatzari:

1.- 2021eko ekainaren 22an Bozeramaileen Batzordean onartutako Erakunde Adierazpenen berri ematen zaio:

EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta Elkarrekin Donostia udal talde politikoek aurkeztutako Erakunde Adierazpen bateratua, Gasteizko PPko zinegotzi ohiaren aurkako erasoari buruz. (Gehiengoz onartua, EAJ/PNV, Donostiako Sozialistak PSE-EE, PP eta Elkarrekin Donostia udal taldeko Bozeramaileen aldeko botoekin eta EH BILDU taldeko Bozeramailearen aurkako botoarekin).

Erakunde Adierazpena, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, hilekoaren pobrezia desagaertzeari buruzkoa. PUNTUKA BOZKATU DA:

- 2. puntua: Gehiengoz onartua, EAJ/PNV, Donostiako Sozialistak PSE-EE, PP eta Elkarrekin Donostia udal taldeko Bozeramaileen aldeko botoekin eta EH BILDU taldeko Bozeramailearen abstentzioarekin.

“Al Ayuntamiento Pleno se da cuenta de:

1.- Declaraciones Institucionales aprobadas en Junta de Portavoces de fecha 22 de junio de 2021:

Declaración Institucional conjunta presentada por los grupos políticos municipales EAJ-PNV, PSE-EE, PP y Elkarrekin Donostia, sobre el ataque al ex concejal del PP de Vitoria-Gasteiz. (Aprobado, por mayoría, con los votos a favor de los Portavoces de los grupos municipales EAJ/PNV, Socialistas Donostiarras PSE-EE, PP y Elkarrekin Donostia y el voto en contra de la Portavoz del Grupo EH BILDU).

Declaración Institucional presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia sobre la erradicación de la pobreza menstrual. VOTACIÓN POR PUNTOS:

- Punto nº2: Aprobado, por mayoría, con los votos a favor de los Portavoces de los grupos municipales EAJ/PNV, Socialistas Donostiarras PSE-EE, PP y Elkarrekin Donostia y la abstención de la Portavoz del Grupo EH BILDU.

Donostian, 2021eko Ekainaren 22an"

IDAZKARI NAGUSIA
EL SECRETARIO GENERAL

Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA”

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**ENTERADO.**

---------------

I

ERABAKI ZATIA

LURRALDE GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEA

**4. Zarata eta bibrazioek sortutako kutsadura akustikoari aurre egiteko udalaren jokabidea arautzen duen Ordenantza hasiera baten onartzea.**

"UDALBATZARI

ZARATA ETA BIBRAZIOEK SORTUTAKO KUTSADURA AKUSTIKOARI AURRE EGITEKO UDALAREN JOKABIDEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA-REN HASIERA BATEN ONARTZEA.

Donostiako Udalak, kutsadura akustikoaren eremuan zarata eta bibrazioen ondoriozko kutsadura akustikoaren aurrean udal jarduketa arautzen duen ordenantza onartu zuen 2000ko urriaren 17an, ingurumen arloko araudiaren ikuspuntutik. Ordenantza horrek bi aldaketa izan ditu (2006ko irailaren 26ko osoko bilkuraren akordioa eta 2010eko urriaren 1eko osoko bilkuraren erabakia), zaratari buruzko 37/2003 Legea indarrean sartzean, doikuntza txikiak eginez eta aipatutako legera egokitzeko.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko ekainaren 25eko 2002/49/EE Zuzentarauak, ingurumen-zarataren ebaluazioari buruzkoak, honako hau garatu zuen: Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea; 1513/2005 Errege Dekretua, abenduaren

I

PARTE RESOLUTIVA

COMISIÓN DE DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO

**4. Aprobación inicial de la Ordenanza reguladora de la actuación municipal frente a la contaminación acústica por ruidos y vibraciones.**

"AL AYUNTAMIENTO PLENO

APROBACIÓN INICIAL DE LA ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA ACTUACIÓN MUNICIPAL FRENTE A LA CONTAMINACIÓN ACÚSTICA POR RUIDOS Y VIBRACIONES

El Ayuntamiento de San Sebastián aprobó, con fecha 17 de octubre de 2000 la Ordenanza reguladora de la actuación municipal frente a la contaminación acústica por ruidos y vibraciones actuando en el ámbito de la contaminación acústica desde el punto de vista de la normativa medioambiental. Dicha ordenanza ha sido objeto de dos modificaciones (acuerdo plenario de 26 de setiembre de 2006, y acuerdo plenario de 1 de octubre de 2010) con motivo de la entrada en vigor de la ley 37/2003 del ruido y de sus reglamentos de desarrollo, haciendo pequeños ajustes y adaptaciones a la mencionada ley.

La publicación de la Directiva 2002/49/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 25 de junio de 2002, sobre evaluación del ruido ambiental, dio lugar al desarrollo de la Ley 37/2003, de 17 de noviembre, del Ruido; del Real Decreto 1513/2005, de 16 de diciembre,

16koa, ingurumen-zarata ebaluatzeari eta kudeatzeari dagokionez garatzen duena, eta 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, zonakatze akustikoari, kalitate-helburuei eta soinu-igorpenei dagokienez garatzen duena. Arau-esparru hori Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan osatzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuarekin.

que la desarrolla en lo referente a la evaluación y gestión del ruido ambiental; y del Real Decreto 1367/2007, de 19 de octubre, que la desarrolla en lo referente a zonificación acústica, objetivos de calidad y emisiones acústicas. Este marco normativo se completa en el ámbito de la Comunidad Autónoma con el Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2000. urteko Ordenantza horren balioespena positiboa da, izan ere, hastapenetik eta garatu den urteetan zehar, zarataren aurkako beharrezkoak diren neurriak kontrolatu eta aplikatzeko tresna egokia izan da.

La valoración de dicha Ordenanza del año 2000 es positiva, ya que ha sido desde sus inicios y durante sus años de desarrollo, una herramienta adecuada para el control y aplicación de las medidas necesarias contra el ruido..

Bertan xedatutako funtsezko alderdiak mantentzearen kalterik gabe, lehen adierazitako arauzko aldaketek, gainera berrikuntza tekniko garrantzitsuak inplikatzen dituztenak, eta behin aipatu arauek egunerokotasuneko errealitatean duten eragina ikusteko nahiko denbora igarota, aurrekoa ordeztuko duen testu berri bat eratzea aholkatzen dute.

Sin perjuicio de mantener en sus aspectos esenciales lo dispuesto en la misma, los cambios normativos antes señalados, que implican además novedades técnicas importantes, y una vez transcurrido suficiente tiempo como para ver las implicaciones de las citadas normas en la realidad cotidiana, aconsejan la elaboración de un nuevo texto que sustituya al anterior.

Horregatik, udal-arloekin lankidetzan, zarata eta dardarengatiko kutsadura akustikoaren aurrean udal jarduera arautzen duen ordenantza-proiektu bat egin da, eta hori administrazio-espedienteari erantsi zaio.

Por ello, en colaboración con diversas áreas municipales, se ha elaborado un proyecto de Ordenanza reguladora de la actuación municipal frente a la contaminación acústica por ruidos y vibraciones, que se adjunta al expediente administrativo.

Proiektua Eusko Jaurlaritzara bidali zen Ingurumen Ebaluazio Estrategiko Sinplifikaturako, eta urtarrilaren 18an txostena jaso zen, Ingurumen Administrazioko zuzendariaren 2019ko urtarrilaren 15eko ebazpenaren bidez espedientea artxibatu egin dela adieraziz.

El proyecto ha sido enviado a Gobierno Vasco para Evaluación Ambiental Estratégica Simplificada y con fecha 18 de enero se recibió informe indicando que, por resolución de 15 de enero del 2019 del director de Administración Ambiental, se archiva el expediente.

Otsailaren 13tik otsailaren 27ra bitartean hirugarren kontsulta publikoa egin zen Ordenantza honi buruz eta kontsulta publiko honetan aurkeztutako ekarpenei buruzko

Desde el 13 de febrero al 27 de febrero se realizó la tercera consulta pública previa en relación a este Ordenanza y el resumen sobre las aportaciones presentadas durante esta

txostena espedientean jasota dago.

consulta pública está incluido en el expediente.

Era berean, Finantza Arloko Ordenantzaren iraunkortasun ekonomikoaren balorazioa egin da eta espedientean sartu da Diruzaintzaren eta Finantza Zuzendariaren aldeko txostena.

Asimismo, se ha realizado valoración de la sostenibilidad económica de la Ordenanza por parte del Area Financiera y se incluye en el expediente el informe favorable del Tesorero-Director Financiero.

Bestalde, martxoaren 15ean Euskara Zerbitzuaren txostena jaso da, eta martxoaren 29an Hirigintza Zuzendaritza. Bi arlo horiek egindako ekarpenak onartu nahi den testuan sartu dira.

Por otro lado con fecha 15 de marzo se ha recibido el informe del Servicio de Euskera y con fecha 29 de marzo el de la Dirección de Urbanismo. Las aportaciones realizadas por estas dos áreas han sido incorporadas al texto que se propone a aprobación.

Generoaren eraginari dagokionez, adierazi behar da ordenantzak ez duela garrantzirik generoaren ikuspuntutik, eta Genero-eraginaren aurretiko Ebaluazioa egitetik salbuetsita geratzen dela.

En cuanto a impacto de género, hay que indicar que la ordenanza carece de relevancia desde el punto de vista de género y queda exenta de la realización de una Evaluación Previa de Impacto de Género.

Gainera, adierazten da ordenantza Ingurumen Sektorialeko kontseilukideen artean jorratu zela.

Asimismo, se dio cuenta de la ordenanza a los miembros del Consejo Sectorial de Medio Ambiente.

Aurretiazko hirugarren kontsulta publikoa iraungi ondoren, laugarren kontsulta publiko bat egin da, 2020ko irailaren 28tik urriaren 12ra. Ekarpenak aurreko kontsultetako ekarpenen antzekoak izan dira, eta, beraz, onartzeko proposatzen den testua ez da aldatu.

Tras la caducidad de la tercera consulta pública previa se ha procedido a realizar una cuarta consulta pública, del 28 de septiembre al 12 de octubre del 2020. Las aportaciones han sido similares a las de las consultas previas anteriores, por lo que el texto que se propone a aprobación no se ha variado. Se adjunta resumen de aportaciones.

Hori horrela, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985) 49. artikuluan xedatutakorekin bat, hasierako onarpena eman behar zaio. Horretarako, honako akordio hau proposatzen zaio Udalbatzari:

Procede en consecuencia y de conformidad con lo establecido en el Artículo 49 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las bases de régimen local, su aprobación inicial, por lo que se propone al Ayuntamiento Pleno, el siguiente

A K O R D I O A

A C U E R D O

1. “Zarata eta bibrazioek sortutako kutsadura

1º.- Aprobar inicialmente la “Ordenanza

akustikoari aurre egiteko udalaren jokabidea arautzen duen ordenantza-ren ” hasiera batean onartzea.

2. Espedientea informazio publikoko eta interesdunen entzunaldiko izapidean jartzea hogeita hamar egunez, erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izateko.

3. Ez bada erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten, akordioa behin betiko onartuta dagoela ulertuko da.

municipal reguladora de la actuación municipal frente a la contaminación acústica por ruidos y vibraciones”.

2º.- Someter el expediente a información pública y audiencia a los interesados por el plazo de treinta días para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

3º.- En el caso de que no se presentase ninguna reclamación o sugerencia se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo.

Donostian, 2021eko martxoaren 9ean"

INGURUMEN OSASUNAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN ZERBITZUAREN BURUA
LA JEFA DE SERVICIO DE SALUD AMBIENTAL Y SOSTENIBILIDAD

Ana Juaristi Arrieta

INGURUMENEKO ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE MEDIO AMBIENTE

Josu Benaito Villagarcía

EKOLOGIAKO, OSASUN PUBLIKOKO, GARAPEN EKONOMIKOKO ETA ENPLEGUKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
LA CONCEJALA DELEGADA DE IMPUSLO ECONÓMICO Y EMPLEO, ECOLOGÍA Y SALUD PÚBLICA

María Soledad Gamendia Beloqui”

Eztabaida hasita, Marisol Garmendia Beloqui andreak, Haizea Garay Gallastegui andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Ricardo Burutaran Ferre jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Marisol Garmendia Beloqui, D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Borja Corominas Fisas y D. Ricardo Burutaran Ferré, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 4. GAIARI AURKEZTUTAKO 1. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 1 AL ASUNTO N.º 4 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 8 – (5) EH BILDU, (3) PP.**

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 4. GAIARI AURKEZTUTAKO 2., 4. ETA 16. ZUZENKETEN BOZKETA / VOTACIÓN DE LAS ENMIENDAS N.º 2, N.º 4 Y N.º 16 AL ASUNTO N.º 4 PRESENTADAS POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUAK.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADAS.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 4. GAIARI AURKEZTUTAKO 3., 18. ETA 19. ZUZENKETEN BOZKETA / VOTACIÓN DE LAS ENMIENDAS N.º 3, N.º 18 Y N.º 19 AL ASUNTO N.º 4 PRESENTADAS POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUAK.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 5 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADAS.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 5 – EH BILDU.**

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 4. GAIARI AURKEZTUTAKO 5. ETA 7. ZUZENKETEN BOZKETA / VOTACIÓN DE LAS ENMIENDAS N.º 5 Y N.º 7 AL ASUNTO N.º 4 PRESENTADAS POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUAK.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 6 – (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 20 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADAS.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 6 – (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 20 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 4. GAIARI AURKEZTUTAKO 6., 12., 13., 14. ETA 15. ZUZENKETEN BOZKETA / VOTACIÓN DE LAS ENMIENDAS N.º 6, N.º 12, N.º 13.º, N.º 14 Y N.º 15 AL ASUNTO N.º 4 PRESENTADAS POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUAK.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 23 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADAS.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 23 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 4. GAIARI AURKEZTUTAKO 17., 20., 21. ETA 22. ZUZENKETEN BOZKETA / VOTACIÓN DE LAS ENMIENDAS N.º 17, N.º 20, N.º 21 Y N.º 22 AL ASUNTO N.º 4 PRESENTADAS POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUAK.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 23 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADAS.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 23 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 4. GAIARI AURKEZTUTAKO 8. ETA 9. ZUZENKETEN BOZKETA / VOTACIÓN DE LAS ENMIENDAS N.º 8 Y N.º 9 AL ASUNTO N.º 4 PRESENTADAS POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:** |
| **BAZTERTUAK.** | **RECHAZADAS.** |
| **GEHIENGOA.** | **MAYORÍA.** |
| **ALDEKO BOTOAK: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.** | **VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.** |
| **AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.** | **VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.** |
| **ABSTENTZIOAK: 0.** | **ABSTENCIONES: 0.** |

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 4. GAIARI AURKEZTUTAKO 10. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 10 AL ASUNTO N.º 4 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:** |
| **BAZTERTUA.** | **RECHAZADA.** |
| **GEHIENGOA.** | **MAYORÍA.** |
| **ALDEKO BOTOAK: 6 – (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.** | **VOTOS A FAVOR: 6 – (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.** |
| **AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.** | **VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.** |
| **ABSTENTZIOAK: 5 – EH BILDU.** | **ABSTENCIONES: 5 – EH BILDU.** |

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 4. GAIARI AURKEZTUTAKO 11. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 11 AL ASUNTO N.º 4 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:** |
| **ONARTUA.** | **APROBADA.** |
| **GEHIENGOA.** | **MAYORÍA.** |
| **ALDEKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.** | **VOTOS A FAVOR: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.** |
| **AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.** | **VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.** |
| **ABSTENTZIOAK: 5 – EH BILDU.** | **ABSTENCIONES: 5 – EH BILDU.** |

**PP TALDEAK 4. GAIARI AURKEZTUTAKO 1. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 1 AL ASUNTO N.º 4 PRESENTADA POR EL GRUPO PP:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**PP TALDEAK 4. GAIARI AURKEZTUTAKO 2., 6., 11., 13. ETA 14. ZUZENKETEN BOZKETA / VOTACIÓN DE LAS ENMIENDAS N.º 2, N.º 6, N.º 11, N.º 13 Y N.º 14 AL ASUNTO N.º 4 PRESENTADA POR EL GRUPO PP:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUAK.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 20 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADAS.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 20 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

**PP TALDEAK 4. GAIARI AURKEZTUTAKO 3., 10. ETA 12. ZUZENKETEN BOZKETA / VOTACIÓN DE LAS ENMIENDAS N.º 3, N.º 10 Y N.º 12 AL ASUNTO N.º 4 PRESENTADA POR EL GRUPO PP:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUAK.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 6 – (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 20 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADAS.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 6 – (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 20 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**PP TALDEAK 4. GAIARI AURKEZTUTAKO 4. ETA 9. ZUZENKETEN BOZKETA / VOTACIÓN DE LAS ENMIENDAS N.º 4 Y N.º 9 AL ASUNTO N.º 4 PRESENTADA POR EL GRUPO PP:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUAK.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 6 – (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 5 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADAS.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 6 – (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 5 – EH BILDU.**

**PP TALDEAK 4. GAIARI AURKEZTUTAKO 5. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 5 AL ASUNTO N.º 4 PRESENTADA POR EL GRUPO PP:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**PP TALDEAK 4. GAIARI AURKEZTUTAKO 7. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 7 AL ASUNTO N.º 4 PRESENTADA POR EL GRUPO PP:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 23 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 23 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**PP TALDEAK 4. GAIARI AURKEZTUTAKO 8. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 8 AL ASUNTO N.º 4 PRESENTADA POR EL GRUPO PP:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (5) EH BILDU, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**PP TALDEAK 4. GAIARI AURKEZTUTAKO 15. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 15 AL ASUNTO N.º 4 PRESENTADA POR EL GRUPO PP:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**EH BILDU TALDEAK 4. GAIARI AURKEZTUTAKO ETA EAJ/PNV ETA PSE-EE TALDEEKIN ADOSTUTAKO 1. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 1 AL ASUNTO N.º 4 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU, TRANSACCIONADA CON LOS GRUPOS EAJ/PNV Y PSE-EE.**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

**EH BILDU TALDEAK 4. GAIARI AURKEZTUTAKO 2. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 2 AL ASUNTO N.º 4 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**

GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 0.

MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 0.

EH BILDU TALDEAK 4. GAIARI AURKEZTUTAKO 3., 4. ETA 5. ZUZENKETEN BOZKETA / VOTACIÓN DE LAS ENMIENDAS N.º 3, N.º 4 Y N.º 5 AL ASUNTO N.º 4 PRESENTADAS POR EL GRUPO EH BILDU:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUAK.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADAS.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENCIONES: 0.

4. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 4:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
AURKAKO BOTOAK: 0.
ABSTENTZIOAK: 11 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA, (3) PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
VOTOS EN CONTRA: 0.
ABSTENCIONES: 11 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA, (3) PP.

---------------

KONTUEN BATZORDEA

COMISIÓN DE CUENTAS

5. 2020ko Kontu Orokorraren onarpena.

5. Aprobación de la Cuenta General 2020.

"UDALBATZARI

Kontuen Batzorde Bereziak 2021eko apirilaren27ko bilkuran aldeko iritzia eman zizkion 2020ekitaldiko kontuei, honako hauek hartzen baitituzte barne:

*Donostiako Udala.

*Erakunde autonomoak administratiboak:

-Kirol Patronatua
-Musika eta Dantza Eskola
-DonostiaTik

*Partizipazio guztiak udalarenak diren akziokako baltzuak:
-Anoeta Kiroldegia AB
-Donostiako Hileta Zerbitzuak AB

-Donostiako Sustapena AB
-Eguskitza AB
-Donostiako Tranbia Konpainia, AB

-La Perla del Oceano Bainuetxea baltzu mugatua
-Donostia Turismoa, AB

*Enpresa Erakunde Publikoak:
-Donostiako Etxegintza
-Donostia Kultura eta menpeko sozietateak:
.San Telmo Museoa, A. B.
.Victoria Eugenia Antzokia, A.B.

Jende aurrean ikusgai jarrita egon dira kontuok, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak 2021eko maiatzaren 5ko 82. alean argitaraturiko iragarkiaren bidez, arauzko epean inongo oharrik edo erreparorik aurkeztu ez dela.

Espedientearen barne dago aurrekontuaren egonkortasun, finantza iraunkortasun,

"AL EXCMO. AYUNTAMIENTO PLENO

La Comisión Especial de Cuentas, en reunión celebrada el 27 de abril de 2021, informó favorablemente las Cuentas correspondientes al ejercicio 2020 e integradas por:

*Ayuntamiento de San Sebastián.

*Organismos Autónomos de carácter administrativo.
-Patronato Municipal de Deportes
-Escuela de Música y Danza
-DonostiaTik

*Sociedades Anónimas de participación íntegra:

-Anoeta Kiroldegia, S.A.
-Servicios Funerarios de Donostia-San Sebastián, S.A
-Fomento de San Sebastián, S. A.
-Eguzkitza, S.A.
-Compañía del Tranvía de San Sebastián, S. A.
-Sociedad del Balneario La Perla del Océano, S.L.
-Donostia Turismo, S.A.

*Entidades Públicas Empresariales
-Donostiako Etxegintza
-Donostia Kultura, integrado por:

.Museo San Telmo, S. A.
.Victoria Eugenia, S. A.

Las mismas han sido objeto de exposición pública, mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 82 de 5 de mayo de 2021, sin que durante el plazo reglamentario se hayan presentado observaciones ni reparos.

El Expediente contiene Informe en relación al cumplimiento de los objetivos de estabilidad

hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea eta 2020ekitaldirako gastu araua helburuak betetzeari buruzko txostena.

presupuestaria, sostenibilidad financiera, periodo medio de pago a proveedores y Regla de Gasto, fijados para el Ejercicio 2020.

Aurrekoa oinarri, egoki iritzi diogu Udal honi ondoko akordioak hartzea proposatzeari.

En base a lo expuesto se propone al Ayuntamiento Pleno la adopción de los siguientes acuerdos:

LEHENGOA:2020ko ekitaldiko kontu orokorra onartzea.

PRIMERO.- Aprobar la Cuenta General correspondiente al ejercicio 2020.

BIGARRENA: Udalbatzak ezaguntzat jotzen du, tokiko entitateentzat finkaturiko Aurrekontuaren Egonkortasuna, finantza egonkortasuna, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea eta 2020ko ekitaldiko gastu araua, Kontuhartzailetza Orokorrak Donostiako Udalaren, bere erakundeen eta menpeko entitateek 2019ko ekitaldian izan duten jardueren ixteari buruz eginiko txostena. Bertan azaltzen denez, Donostiako Udaleko Sektore Publikoak 2020urterako aurrekontuaren egonkortasuna bermatzeko helburuz finkaturiko izapideak bete ditu,

SEGUNDO.- El Ayuntamiento Pleno se da por enterado del Informe de la Intervención General en relación al Cumplimiento de los Objetivos de estabilidad presupuestaria, sostenibilidad financiera, periodo medio de pago a proveedores y regla de gasto al cierre del Ejercicio 2020 del Ayuntamiento y sus organismos y entidades dependientes. Del citado Informe se deduce que el Sector Público del Ayuntamiento de Donostia – San Sebastián ha cumplido los objetivos establecidos para el Ejercicio 2020.

HIRUGARRENA: Kontuen Euskal Epaitegiari bidaltzea 2020ko ekitaldiko Kontu Nagusia kanpoko fiskalizazioa egin diezaion, erakundeak berak erabakiko dituen helmen eta baldintzekin.

TERCERO.-Poner a disposición del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la Cuenta General del Ejercicio de 2020 para su fiscalización externa, con el alcance y condiciones que el propio Tribunal determine.

Donostia, 2021eko maiztzaren 27a.

San Sebastián, 27 de mayo de 2021.

KONTU HARTZAILE NAGUSIA/

O.E/ VºBº/

EL INTERVENTOR GENERAL".

FINANTZA ETA OGASUNEKO ORDEZKARIA
EL DELEGADO DE HACIENDA Y FINANZAS".

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**

**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

---------------

## II

## INFORMAZIO, SUSTAPEN ETA KONTROLA

## II

## INFORMACIÓN, IMPULSO Y CONTROL

### II.1

### MOZIO ARRUNTAK

### II.1

### MOCIONES ORDINARIAS

**6. Mozio arrunta, EH BILDU taldeak aurkeztua, Topoaren Altzako geltokiko oztopo arkitektonikoak direla eta.**

“EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Topoaren Altzako geltokiko oztopo arkitektonikoak direla eta.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko irailean ireki zen Topoaren Altzako geltokia. Erabiltzen hasi bezain pronto, ordea, bizilagunak ohartu ziren oztopo arkitektonikoak zituela.

Batetik, Santa Barbarako eta Larratxo kaleko sarrera-irteerek eskailerak dituzte lehen (edo azken) zatian. Gainera, koska arriskutsu bat dute biek ala biek espaloiaren eta sarrera-irteeraren artean. Horiek erabat zailtzen diete geltokira jaistea edo geltokitik irtetzea pertsona ezinduei ez ezik, erosketako edo

**6. Moción ordinaria, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre las barreras arquitectónicas de la estación del Topo de Altza.**

“Reyes Carrere Zabala, portavoz del grupo municipal EH Bildu, en base al artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presento la siguiente MOCION ORDINARIA en relación a las barreras arquitectónicas en la estación del topo de Altza.

JUSTIFICACIÓN

En septiembre de 2016 se inauguró la estación del Topo de Altza. Sin embargo, nada más empezar a utilizarla, los vecinos y vecinas se dieron cuenta de que presentaba barreras arquitectónicas.

Por un lado, las entradas y salidas de Santa Bárbara y Larratxo tienen escaleras en el primer (o último) tramo. Además, ambas presentan un peligroso desnivel entre la acera y la entrada y salida. Ello dificulta totalmente el descenso a la estación o la salida de ella, no sólo a las personas con discapacidad, sino también a

haurrentzako orgatxoekin, edota bizikletekin Topora iritsi nahi duten pertsonei ere.

Eta bestetik, Larratxo kalearen eta Altza pasealekuaren arteko bidegurutzean dagoen igogailuak ez ditu osoki asetzen aipatu irisgarritasun arazoek beharko lituzketen irtenbideak. Hain zuzen ere, Altzako geltokitik irtetzeko aukera irisgarria ematen badu ere, ez da hala sarreraren ikuspegitik. Elizasu auzotik, osasun etxetik edota Harrobieta eremutik geltokira iristeko malda handiegia dago, eta adineko auzotarrek eta ezinduak lagundu behar dituzten pertsonek zailtasun handiak dituzte horraino iristeko. Bizilagun askok adierazi digutenez, hori ere bada Topoaren Altzako geltokia ez erabiltzeko arrazoietako bat.

EH Bilduren ustez, ez da onargarria, 2021ean, hain auzo jendetsuari mugikortasun zerbitzua eskaini nahi dion azpiegitura publiko batek horrelako oztopo arkitektonikoak izatea. Horregatik, uste dugu baliatu egin behar dugula Eusko Trenbide Sarea (ETS) Topoaren Altza-Galtzaraborda zatia egiteko lanak hastear dituela, eskatzeko ETSri Topoaren Altzako geltokiko oztopo arkitektonikoak zuzentzeko. Garaiz gaude.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

MOZIO ARRUNTA

Las respuestas dadas en la Comisión fueron bastante inconcretas, se nos habló de que se iba a modificar la ordenanza de circulación para incluir la normativa, que se iba a rebajar la edad de circulación en estos vehículos hasta los 15 años para igualarla a los ciclomotores, y preguntada por si se iban a realizar campañas de concienciación o sensibilización del uso de este tipo de vehículos se nos dijo que: “seguiremos haciendo conjuntamente con el control de bicis y los vehículos de movilidad personal por las aceras”.

Pero lo cierto es que la presencia de estos vehículos por las aceras y calles peatonales se siguen produciendo, sin que los agentes de movilidad, en muchos casos, puedan hacer algo, y por estas vías tienen prohibida la circulación. La añorada convivencia con los peatones no se llega a producir, y se siguen

izaten dira "sustoak" adineko pertsonekin, haurrekin edo ikusmen arazoak dituzten pertsonekin.

Mugikortasuneko zinegotziak joan den Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) emandako erantzuna ere ez zen zehatza izan. Esan zigun bizikletekin jarraitzen den politika berbera jarraitzen dela, ibilgailuok modu berean arautzen dituztelako, eta lan egiten dutela, jardunbide txarrik izan ez dadin. Baina hori ez da donostiarrek duten irudipena.

“Noizean behin” egiten diren kanpainak, Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariak aipatutako horiek, ez dira, inola ere, nahikoak, eta oharkabean pasatzen dira. Horren ondorioz, patinete elektronikoak nahi duten tokian, nahi dutenean eta nahi duten bezala ibiltzen dira.

Hori dela eta, hauxe da alkateari egiten diodan

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari jar dezala martxan, ahal den azkarren, patinete elektrokoak behar bezala erabiltzeko kanpaina bat.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari patinete elektrikoen erabiltzaileei araudia betearazteko kontrol handiago bat egiteko.

Donostia, 2021eko ekainaren 17a

Mikel Lezama Zubeldia
PP udal taldeko zinegotzia".

produciendo “sustos” con personas de avanzada edad, niños y/o personas con problemas de visión.

En la pasada Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, la respuesta dada por la concejal de movilidad seguían sin ser concretas. Se nos dijo que se sigue la misma política que con las bicis, porque las regulan de la misma manera, y que se actúa para que no haya malas prácticas. Pero esta no es la sensación que tienen los donostiarras.

Las campañas que “se hacen de vez en cuando” a las que hizo alusión la Delegada de Movilidad, son claramente insuficientes y pasan totalmente desapercibidas, de manera que los patines eléctricos circulan por donde quiere, cuando quieren y como quieren.

Por todo lo expuesto, el concejal que suscribe presenta al Alcalde la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a poner en marcha, a la mayor brevedad posible, una campaña de uso adecuado de los patinetes eléctricos.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a realizar un mayor control para hacer cumplir la normativa vigente a los usuarios de los patinetes eléctricos.

San Sebastián, a 17 de junio de 2021

Mikel Lezama Zubeldia
Concejal del Grupo Municipal Popular”.

Eztabaida hasita, Mikel Lezama Zubeldia jaunak, Marta Huarte Paño andreak, Reyes Carrere Zabala andreak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. Mikel Lezama Zubeldia, D.ª Marta Huarte Paño, D.ª Reyes Carrere Zabala y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**3. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 21 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 5 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 21 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 5 – EH BILDU.**

**3. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

---------------

**II.2.4. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, kontsultoreen arteko lehiari buruz.**

“Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisas naizen honek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 94. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten dut, Zerbitzu Publikoen Batzordean kontsultoreen arteko lehiari buruz aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2021eko maiatzaren 12an, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (CNMC) txosten bat plazaratu zuen, eta hartan zioenez, aholkularitza enpresa batzuk aritu dira administrazioak aholkularitza zerbitzuengatik ordaintzen zituen prezioak igotzen eta 10 urtean baino gehiagoan lizitazio publikoak manipulatzen.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren txostenaren arabera, zerbitzuen kalitatea hobetzeko pizgarria mugatu eta karteletatik kanpoko lehiakideei ez zieten lizitazio prozesuetan parte hartzen utzi. Jokabide horiek bete-betean eragin diote funts publikoari, aurrekontuen bidez ordaintzen diren kontratuak direlako.

Begi-bistakoa dirudi bezero sistema hori ezin zitekeela moldatu sektore publikoaren adostasunik izan gabe ez ezik, haren bultzadarik gabe ere. Izan ere, txostenean aipatzen diren ia kontratu guztiak publizitaterik gabe negoziaturiko kontratuak dira, eta erakunde publikoek beti aholkularitza enpresa berberei gonbit egiten zieten, beti karteleko kide ziren aholkulariei, gainera.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren txostenak Donostiako Udalak sinatutako

**II.2.4. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre la competencia de consultoras.**

“Borja Corominas Fisas, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 94 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, como consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios Generales, sobre la competencia de consultoras.

JUSTIFICACIÓN

El 12 de Mayo de 2021 la Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia (CNMC) presentó un informe en el que detallaba cómo algunas consultoras han estado manipulando licitaciones públicas durante más de 10 años, "elevando los precios que pagaba la administración por los servicios de consultoría”.

El informe de la CNMC añade que “se limitó el incentivo a la mejora en la calidad de los servicios y se impidió la participación de competidores ajenos a los cárteles en los procesos de licitación. Estas conductas impactaron de lleno en el erario público al ser contratos que se sufragan vía presupuestos”

Parece evidente que este sistema clientelar no se podía haber fraguado sin la connivencia, si no impulso, del sector público. Prácticamente todos los contratos a los que hace referencia el informe son negociados sin publicidad, en los que las instituciones públicas invitaban siempre a las mismas consultoras, y siempre a consultoras que formaban parte del cártel.

El informe de la CNMC menciona contratos firmados por el Ayuntamiento de San

kontratuak aipatzen ditu:

1. Ekintzailetza Teknologikoaren Sarearen lizitazioa, Donostiako Sustapenarena.

2. Surf Hirien Sarea dinamizatzea, Donostiako Sustapenarena.

3. Tabakalerako aisialdi guneen bideragarritasun plana egiteko aholkularitza, Tabakalerarena.

Aipatutako guztiagatik, honako hau aurkezten dugu

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu taldeari hertsatuki eskatzen dio Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren arabera sare ustel bati lotutako enpresekin egindako kontratu mota horiek kontrolatzeko behar diren neurriak martxan jartzeko.

2. Donostiako Udalbatzak Gobernu taldeari hertsatuki eskatzen dio publizitaterik gabeko prozedura negoziatuak debekatzeko eta, kontratu txikiak esleitu ahal izateko, hainbat enpresari 4 eskaintza eskatzeko, bai eta prezioari lehentasuna emateko horiek esleitzeko unean ere.

Donostian, 2021eko ekainaren 17an

Borja Corominas Fisas,
Udal Talde Popularraren bozeramailea".

Sebastián:

1-Licitación de Red de Emprendizaje Tecnológico, de Fomento de San Sebastián.

2- Dinamización de la Red de Ciudades del Surf, de Fomento de San Sebastián.

3- Consultoría para la realización el plan de viabilidad de los espacios de ocio de Tabakalera, de Tabakalera.

Por todo lo expuesto, presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al equipo de Gobierno a poner en marcha las medidas necesarias para controlar este tipo de contratos con empresas vinculadas, según la CNMC, a una red corrupta.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al equipo de Gobierno a prohibir los procedimientos negociados sin publicidad y a exigir 4 ofertas de diferentes empresas para adjudicar contratos menores y que prevalezca el criterio del precio a la hora de adjudicarlos.

San Sebastián, a 17 de junio de 2021

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”.

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Marisol Garmendia Beloqui andreak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Borja Corominas Fisas, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D.ª Marisol Garmendia Beloqui, D. Ricardo Burutaran Ferré y D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**4. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**4. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 23 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 23 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.5. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldek aurkeztua, Altzako Eskalantegi, Berra, Darieta eta Molinao eremuetako bizilagunen**

**II.2.5. Moción de control, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre las necesidades de los vecinos de las zonas de Eskalantegi de**

**beharrei buruzkoa.**

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri hartuta, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2021eko ekainaren 14an Gune Publikoen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Altzako Eskalantegi, Berra, Darieta eta Molinao eremuetako bizilagunek sarritan salatu izan dute Donostiako Udalak ahaztuta dituela. Hainbat arazo eta eskari helarazi izan dituzte:

• Azpiegitura soziokulturalen beharra: Molinaoko hiltegia baliatzeko aukera proposatu du Altza Historia Mintegiak; Luzuriaga eraikina berreskuratzea proposatu dute Luzuriaga Martxan ekimenean bildu diren herritarrak.

• Eskalantegin aparkaleku beharra, baita karga eta deskargarako eremuen beharra ere.

• Darieta kalea noranzko bakarreko bihurtzeak eragin dituen arazoak.

• Segurtasun falta: Sasuategi bidean, argiteria mugatua eta apalegia da, eta motelgailuak eskatu dituzte, autoak bizkorregi ibiltzen direlako; gainera, ez dago espaloirik. Berra bidean ere, moto lasterketak egiten omen dituzte noranzko bakarreko kalean.

• Kimaketa lan eta lorategien zaintza urriegiak: Lorete aldeko zuhaiztia gutxiegitan kimatzeak arazoak eragiten dizkie Eskalantegiko

**Altza, Berra, Darieta y Molinao.**

“Zigor Etxeburua Urbizu, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presento la siguiente moción, para que sea tratada en el Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público del 14 de junio de 2021.

JUSTIFICACIÓN

Las vecinas y vecinos de las zonas de Eskalantegi, Berra, Darieta y Moliano de Altza han denunciado en numerosas ocasiones que el Ayuntamiento de San Sebastián los tiene olvidados. Han puesto de manifiesto diversos problemas y demandas:

• Necesidad de infraestructuras socioculturales: El Seminario de Historia de Altza ha propuesto la posibilidad de utilizar el matadero de Molinao; la ciudadanía reunida en torno a la iniciativa Luzuriaga Martxan ha propuesto recuperar el edificio Luzuriaga.

• Necesidad de aparcamiento en Eskalantegi, y también zonas de carga y descarga.

• Problemas derivados de la transformación de la calle Darieta en calle de dirección única.

• Falta de seguridad: En el camino de Sasuategi, el alumbrado es limitado y excesivamente débil, y han solicitado elementos de calmado del tráfico, ya que los coches circulan demasiado rápido y, además, no hay aceras. En el camino de Berra también parece que se realizan carreras de motos en la calle de dirección única.

• Insuficientes labores de poda y mantenimiento de jardines: La insuficiente poda de la arboleda de la zona de Lorete

etxebizitzei (argitasun falta eta usteldutako orbelak eragiten duen zikinkeria); auzotarrek sarritan eskatu dute Molinaoko makala kimatzeko; kexu azaldu dira bizilagunak Berrako begiratokia zikin eta esertokiak hondatuta daudelako.

• Irisgarritasun arazo nabariak: Berra kalean, Zuluaga etxearen parean, espaloirik ez eta malda handiko errepidetik ibili beharra dute auzotarrek; Darietara iritsiko den igogailua noiz egingo zain dira auzotarrak, beste kokapen bat nahiago duten arren (Eskalantegiko 38. eta 36. zenbakien artean); hauteskunde eskolara adinekoekin iristeko zailtasun nabariak daude; Eskalantegi eta Lorete lotzen dituzten eskailerak oso egoera txarrean daude; Molinaoko aldapako barandan goroldioa dago.

• Eskalantegi kalean dauden merkataritzako eta ostalaritzako establezimendu bakanen egoera zaila da; askok itxi egin behar izan dute azken urteotan.

EH Bilduren ustez, inguru honek dituen ezaugarriak kontuan hartu behar ditu Udal Gobernuak, eta horretarako, auzotarrekin harreman sarria beharko luke. Horregatik, galdetu genuen batzordean zergatik ez dien arreta handiagoa eskaintzen Udal Gobernuak Pasaiako mugan dagoen Altzako eremu horretako bizilagunen beharrei, zergatik ez duen antolatu eremu horretako bizilagunekin harreman bide zuzen eta sarri bat, haien eskariak eta beharrak bertatik bertara ezagutzeko eta irtenbideak haiekin adosteko, eta ba ote duen Udal Gobernuak inguru horretarako garapen eta biziberritze plan bat prestatzeko asmorik.

ocasiona problemas a las viviendas de Eskalantegi (falta de luminosidad y suciedad provocada por la hojarasca en descomposición); las vecinas y vecinos han solicitado en numerosas ocasiones que el chopo de Molinao se pode; las vecinas y vecinos se quejan de que el mirador de Berra está sucio y deteriorado.

• Problemas evidentes de accesibilidad: En la calle Berra, a la altura de la casa Zuluaga, los vecinos y vecinas se ven obligadas a circular sin acera y por una carretera de gran pendiente; el vecindario permanece a la espera de que se construya el ascensor que llegará a Darieta, aunque prefieran otra ubicación (entre los números 38 y 36 de Eskalantegi); existen dificultades evidentes para acceder al colegio electoral con personas mayores; las escaleras que comunican Eskalantegi con Lorete se encuentran en mal estado; hay musgo en la barandilla de la cuesta de Molinao.

• La situación de los pocos establecimientos comerciales y hosteleros situados en la calle Eskalantegi es difícil, muchos han tenido que cerrar en los últimos años.

EH Bildu considera que el Gobierno municipal tiene que tener en cuenta las características de este entorno y para ello debería tener una relación más frecuente con los vecinos y vecinas. Por ello, en la comisión preguntamos por qué el Gobierno municipal no presta más atención a las necesidades del vecindario de la zona de Altza, situada en el límite con Pasaia, por qué no ha organizado una vía directa y frecuente de relación con las vecinas y vecinos de la zona para conocer de primera mano sus demandas y necesidades y consensuar con ellos y ellas las soluciones, y si el Gobierno municipal tiene previsto elaborar un plan de desarrollo y revitalización de la zona.

Erantzunean zinegotzi ordezkariak adierazi zuen Udal Gobernuak badaukala harremana auzotarrekin, baina ez dakiela zergatik egin behar den inguru horretarako garapen eta biziberritze plan bat, Donostiako beste auzoek arazo berdinak izanik. Udal Gobernuak eskari horiei erantzuten omen die aurrekontuak ahalbidetu ahala.

En la respuesta, la concejala delegada manifestó que el Gobierno municipal mantiene contacto con las vecinas y vecinos, pero que no sabe por qué se debe realizar un plan de desarrollo y regeneración de la zona, teniendo como tienen el resto de barrios donostiarras los mismos problemas. El Gobierno Municipal responde a esas demandas en la medida en que los presupuestos lo posibilitan.

EH Bilduk argi du hiriko auzo guztietan dauden arazoei eta beharrei erantzun behar diela Donostiako Udalak. Era berean, argi dugu auzo bakoitzeko ezaugarriek berezitu egiten dituztela arazo eta behar horiek. Horrexegatik, iruditzen zaigu, Udal Gobernuak aipatzen duelarik Donostiako gainerako auzoek ere behar eta arazo berdinak dituztela, iskin egin nahi diela auzotarren eskariei, baina arazoek eta beharrek hor jarraitzen dute.

EH Bildu tiene claro que el Ayuntamiento de San Sebastián debe dar respuesta a los problemas y necesidades existentes en todos los barrios de la ciudad. También tenemos claro que las características de cada barrio hacen diferentes esos problemas y necesidades. Por ello, consideramos que cuando el Gobierno municipal menciona que el resto de barrios de San Sebastián también tienen las mismas necesidades y problemas, quiere eludir las peticiones de los vecinos y vecinas, pero los problemas y necesidades siguen estando ahí.

Horren haritik, EH Bilduk gogorarazi zion Udal Gobernuari uko egin ziola Pasaiako mugan Donostiak dituen auzoetako bizilagunen behar eta arazoak ezagutzeko eta aztertzeko batzorde bat osatzeari.

En este sentido, EH Bildu recordó al Gobierno municipal que este se negó a constituir una comisión para conocer y analizar las necesidades y problemas de los vecinos y vecinas de los barrios de San Sebastián que limitan con Pasaia.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Es por ello por lo que el que concejal que suscribe presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin dezala espazio publikoaren auditoretza bat Eskalantegi, Berra, Darieta eta Molinao eremuetan, parte hartzeko, irtenbideak zehazteko eta exekuziora eramateko prozedura batekin, eta esperientzia

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a realizar una auditoría del espacio público en las zonas de Eskalantegi, Berra, Darieta y Molinao, mediante un procedimiento de participación, definición de soluciones y puesta en ejecución,

hori beste auzo batzuetarako baliagarri izateko borondatearekin.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari justifikazioan aipatutako eskarien egoeraren berri eman diezaiela udal taldeei, zehaztuta auzotarren eskariaren zehaztasunak, data, irtenbiderik eman zaion, bidean den edo baztertu den, eta zer irtenbide proposatu den.

Donostian, 2021eko ekainaren 17an

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

y con la voluntad de que esta experiencia resulte útil para otros barrios.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a informar a los grupos municipales sobre el estado de las peticiones mencionadas en la justificación, concretando los detalles de las demandas vecinales, la fecha, si se le ha dado alguna solución, si está en curso o ha sido rechazada, y la solución propuesta.

En San Sebastián, a 27 de junio de 2021

Zigor Etxeburua Urbizu,
concejal del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Zigor Etxeburua Urbizu jaunak, Marta Huarte Paño andreak eta M.ª Jesus Idoeta Madariaga andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. Zigor Etxeburua Urbizu, D.ª Marta Huarte Paño y D.ª M.ª Jesús Idoeta Madariaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**5. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (4) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 1 EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (4) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 1 EH BILDU, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

**5. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (4) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 1 EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (4) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 1 EH BILDU, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**II.2.6. Kontrol mozioa, EH BILDU eta Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, Isabel II.aren bizikleta-erreirari buruzkoa.**

“Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallasteguik eta EH Bildu taldeko zinegotzi Garbiñe Alkiza Lópezek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten dute, Isabel II.aren hiribideko bidegorriari buruz, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2020ko otsailaren 25ean, Tokiko Gobernu Batzarrak Amara Berriko Isabel II.aren hiribidea berrurbanizatzeko proiektua gauzatzeko esleipena onartu zuen —aurrekontua 900.000 euro inguru zen—. Berrurbanizazio proiektu horren bidez, oinezkoen zonak handitu eta zirkulazio bideak eta aparkalekuak berrantolatu

**II.2.6. Moción de control, presentada por los Grupos EH BILDU y Elkarrekin Donostia, relativa al carril bici de Isabel II.**

“Haizea Garay Gallastegui, concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia, y Garbiñe Alkiza López de Samaniego, concejala del grupo EH BILDU Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presentan la siguiente MOCIÓN DE CONTROL tras la correspondiente interpelación conjunta realizada en la COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO, OBRAS Y SERVICIOS URBANOS, relativa al carril bici de Isabel II.

JUSTIFICACIÓN

El 25 de febrero de 2020 la Junta de Gobierno Local aprobó la adjudicación para la ejecución del proyecto de reurbanización de la avenida Isabel II de Amara Berri, con un presupuesto cercano a los 900.000 euros. El objetivo del proyecto de reurbanización ha sido la de ampliar las zonas peatonales y reordenar los

nahi izan dira, hiri paisaia biziberritzeko eta ingurunea indartzeko. Eremuaren zati bat oinezkoentzat jarri da, baina, orain arte bezala, bi noranzkoetan ibil daitezke ibilgailuak. Bestalde, 30 errei bat jarri da, garraio publikoa, autoak eta bizikletak batera ibil ahal izan daitezen galtzadan.

viales de circulación y aparcamientos, al objeto de regenerar el paisaje urbano y potenciar el entorno. Se trata de una semipeatonalización que, como hasta ahora, permite la circulación de vehículos en ambos sentidos. Asimismo, se se ha establecido un carril 30 para que el transporte público, los coches y las bicicletas hagan un uso compartido de la calzada.

Joan den maiatzaren 26an, Amara Berriko bizilagunek idazki bat sartu zuten udaletxean, espazioaren beste berrantolaketa bat proposatzeko, hiribide horretako mugikortasun aktiboa hobetze aldera. Idazkiak dioenez, proposamen horrek babes zabala izan du, hala nola: Amara Berriko eta Katalina Erausoko guraso elkarteena; bi ikastetxe publiko horietako zuzendaritzena; Amara Berri, Ikasbide eta Illuki elkarteena, bai eta Kalapie txirrindularien elkartearena ere.

El pasado 26 de mayo la asociación de vecinos y vecinas de Amara Berri registraron un escrito en el ayuntamiento con una nueva propuesta de reordinación del espacio al objeto de mejorar la movilidad activa a través de la citada avenida. En el escrito se recoge que la propuesta ha sido apoyada por las asociaciones de padres y madres de Amara Berri y Katalina Erauso así como las propias direcciones de ambos centros educativos públicos, las asociaciones Amara Berri, Ikasbide e Illunki, así como la Asociación Ciclista Kalapie.

Helarazi duten proposamenak, alde batetik, semaforizazioa aldatzea planteatzen du; hala, egungo sekuentzia semaforikoa (1:30 minutukoa) 15 segundo luzatuko balitz, bizikleten trafikoa arintzea lortuko litzateke. Bestalde, bizikletentzako berariazko errei bat jartzea proposatzen dute: horrek segurtasun handiagoa emango luke, eta bizikletaren erabilera erraztu eta sustatuko luke. Soilik bizikletentzat izango den errei bat lortzeko, planteatzen dute ibilgailuak baterian aparkatu beharrean lerroan aparkatzea.

La propuesta que han trasladado plantea, por un lado, un cambio en la semaforización, de tal manera que si la actual duración de la secuencia semafórica de 1:30 minutos incrementara en 15 segundos, se lograría agilizar el tráfico ciclista. Por otro lado, proponen la implantación de un carril específico para bicicletas, que proporcionaría mayor seguridad y con ello permitiría facilitar y fomentar el uso de la bicicleta. Para conseguir un carril específico y exclusivo para las bicicletas se plantea que la actual franja de aparcamiento de vehículos en batería pase a ser en línea.

Obrak egikaritzeko izan diren atzerapenen ondorioz, une egokia da auzo eta gizarte kolektiboek proposatutako aldaketak sartzeko. Gainera, proposamen horrek segurtasuna emango lieke bizikletaz mugitzen diren pertsonei, eta mugikortasun aktiboa sustatuko

Esta propuesta llega en un momento en el que, debido a los retrasos en la ejecución de las obras, se pueden introducir las modificaciones planteadas por colectivos vecinales y sociales. Además, es una propuesta que proporcionaría seguridad a las personas que se desplacen en

luke. Orain, autoek, garraio publikoak eta bizikletek batera erabiltzen dute 30 erreia, baina horrek pertsona askori zaildu egiten die bizikleta garraiobide gisa erabiltzea.

Hil honetako batzordean, Mugikortasuneko zinegotziak uko egin zion auzokoek proposatutako aukera aztertzeari. Alabaina, auzo elkarteak dio proiektua bideragarria dela eta alkateak berak, duela gutxi auzora egindako bisitan, proposamen horri kasu egiteko zer aukera zeuden aztertzea planteatu zuela.

Hori horrela, uste dugu orain dela ekiteko garaia eta taldeen eta herritarren eskaerei erantzuteko garaia.

Hori dela eta, hau da behean sinatzen duten zinegotziek aurkezten duten

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Amara Berriko auzotarren eskaerei kasu egiteko eta bidegorri bat jartzeko, Isabel II.aren hiribidean mugikortasun aktiboa posible izan dadin.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin ditzala egin beharreko aldaketa guztiak Isabel II.aren hiribideko semaforizazioan, bizikleten trafikoa arina eta segurua izan dadin.

Donostia, 2021eko ekainaren 18a

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia

Haizea Garay Gallastegui

bicicleta fomentando una movilidad activa. El actual sistema de carril 30, compartido por coches, transporte público y bicicletas va a dificultar el uso de la bicicleta como transporte para muchas personas.

En la comisión del presente mes la concejala delegada de movilidad se negó a poder estudiar la alternativa planteada por el colectivo vecinal. Sin embargo, desde la asociación vecinal insisten en la viabilidad del proyecto y en el hecho de que el propio Alcalde planteó en una visita reciente al barrio la posibilidad de estudiar alternativas para poder atender esa propuesta.

Es por ello, que consideramos que es el momento de actuar y atender las demandas de colectivos y ciudadanía.

Es por ello por lo que las concejalas abajo firmantes presentan la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a atender las demandas vecinales de Amara Berri ejecutando un carril bici que permita una movilidad activa segura en la avenida Isabel II.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a llevar a cabo las modificaciones necesarias en la semaforización del entorno de Isabel II para poder obtener un tráfico de bicicletas fluido y seguro.

Donostia, 18 de Junio de 2021

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia

Haizea Garay Gallastegui

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia".

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia”.

Eztabaida hasita, Haizea Garay Gallastegui andreak, Reyes Carrere Zabala andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Haizea Garay Gallastegui, D.ª Reyes Carrere Zabala, D. Jorge Mota Iglesias y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.7. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Altzan salatutako sexu-erasoaren aurka kontzentrazio instituzionalik ez egin izanaz.**

“Reyes Carrere Zabala EH Bilduko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri hartuta, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin, Mozioa 2021eko ekainaren 14an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Maiatzaren 13an Altzako adin txikiko hiru gazteren familiek gizon batek sexu-abusua egin zietela salatu zuten. Albisteak, normala denez,

**II.2.7. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la falta de concentración institucional contra la agresión sexual denunciada en Altza.**

“Reyes Carrere Zabala, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno, como consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Servicios a las Personas que se celebró el 14 de junio de 2021.

JUSTIFICACIÓN

El 13 de mayo, las familias de tres jóvenes menores de edad de Alza denunciaron que estos habían sufrido abuso sexual por parte de

eragin handia izan zuen Altzako bizilagunen artean; izan ere, biktimak eta ustezko erasotzailea auzo horretako bizilagunak dira.

un hombre. La noticia, como es lógico, tuvo una gran influencia entre los vecinos y vecinas de Aza, ya que las víctimas y el presunto agresor son vecinos de este barrio.

Salaketen larritasuna eta izaera ikusita, ondorengo egunean Donostiako korporazioak adierazpen instituzional bat onartu zuen erasoak gaitzesteko. Dena dela, egun horretan, EH Bilduren iritziaren kontra, beste erabaki ulertezin eta ezohiko bat ere hartu zen: udaletxe aurrean kontzentraziorik ez egitea.

Dada la gravedad y naturaleza de las denuncias, al día siguiente la Corporación donostiarra aprobó una declaración institucional en la que condenaba las agresiones. Sin embargo, ese mismo día, en contra de la opinión de EH Bildu, se tomó otra decisión incomprensible e inusual: no concentrarse ante el ayuntamiento.

Alegia, eraso sexista bat salatu den aurreko kasu guztietan erabilitako ohiko protokoloaren prozedura aldatuz, Altzako biktimei eta haien familiei, beste kasuetan ez bezala, ez zitzaien babes instituzionalik publikoki adierazi kontzentrazio baten bitartez. Zergatik? Non dago kasu horren eta besteen arteko diferentzia?

Es decir, modificando el procedimiento de protocolo convencional utilizado en todos los casos anteriores en los que se ha denunciado una agresión sexista, a las víctimas de Alza y a sus familias, al contrario que en otros casos, no se les manifestó públicamente el apoyo institucional por medio de una concentración. ¿Por qué? ¿Qué diferencia hay entre este caso y los demás?

Are gutxiago ulertzen da Altzako erasoaren biktimei babesa emateko elkarretaratzea ez egiteko erabakia, korporazioak berak, geroago, beste bi egin dituenean: bata, bere kirol-monitorearen sexu-abusuak salatu zituen neska adingabe bati babesa emateko, eta, bestea, aste honetan bertan, Tenerifen aitaren esku bi neskatoren hilketa salatzeko.

La decisión de no concentrarse en apoyo a las víctimas de la agresión de Alza resulta aún más difícil de entender si tenemos en cuenta que la corporación, se ha concentrado, posteriormente, en dos ocasiones: en una de ellas, para apoyar a una menor de edad que denunció los abusos sexuales de su monitor deportivo y en la otra, para denunciar el asesinato en Tenerife, de dos niñas a manos de su padre, esta misma semana.

Bada gobernuaren eginkizuna sexu-erasoen biktima guztiei maila berdinean babesa adieraztea sustatzea. Eta ulertezina da udal gobernu honek, eta, zehatzago, Berdintasun sailak irizpide aldaketa hori onartzea. Jarrera horrek, nolabait, biktima batzuen kontakizuna zalantzan jartzen du, eta hori oso larria da.

El gobierno tiene el deber de manifestar la protección a todas las víctimas de agresiones sexuales en igualdad de condiciones. Y es incomprensible que este Gobierno municipal, y más concretamente el Departamento de Igualdad, aprueben ese cambio de criterio. Esta actitud, de alguna manera, cuestiona el relato de algunas víctimas y eso es muy grave.

Berdintasuneko zinegotzi delegatua batzordean interpelatutakoan, ez zuen mota honetako kontzentrazio instituzionalak sustatzeko inongo ardurarik azaldu.

Hori guztia ikusita, sinatzen duen zinegotziak honako kontrol mozio hau aurkezten du:

• Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari susta dezala, eraso matxista bat salatzen denean, udal korporazioak biktimei babesa adierazteko kontzentrazio publikoa egitea, salbuespenik gabe, udaletxe aurrean.

Donostian, 2021eko ekainaren 18an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldea".

La concejala delegada de Igualdad, interpelada en la comisión, no manifestó ninguna preocupación por no promover este tipo de concentraciones institucionales.

Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

• El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que, cuando se denuncie una agresión machista, promueva, sin excepciones, la celebración de una concentración pública ante el Ayuntamiento, para que la corporación municipal manifieste su apoyo a las víctimas.

San Sebastián, 18 de junio de 2021

Reyes Carrere Zabala,
grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Reyes Carrere Zabala andreak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Borja Corominas Fisas jaunak, Marisol Garmendia Beloqui andreak, Jon Insausti Maisterrena jaunak eta Haizea Garay Gallastegui andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Reyes Carrere Zabala, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Borja Corominas Fisas, D.ª Marisol Garmendia Beloqui, D. Jon Insausti Maisterrena y D.ª Haizea Garay Gallastegui, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 6 – (5) EH BILDU, (1) HAIZEA GARAY GALLASTEGUI, ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 6 – (5) EH BILDU, (1) HAIZEA GARAY GALLASTEGUI, ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

---------------

**II.2.8. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Viopet proiektuari buruzkoa.**

“Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Marta Huarte Pañok , Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkezten dut, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean hilabete honetan Viopet proiektua inplementatzeari buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Viopet proiektua, indarkeria matxistaren biktima diren animaliak aldi baterako hartzen dituen programa. Animalien Eskubideen Zuzendaritzak eta Animalien aurkako indarkeriaren Behatokiak sortu dute ekimen hori, COVID 19ren krisiaren aurrean, indarkeria matxistaren aurkako kontingentzia planaren esparruan.

Harrera etxeen sareak, zoritxarrez, ez du lagungarriko animalien egonaldia kudeatzeko gaitasunik, eta, beraz, egoera hori konpondu egin beharko litzateke, biktimentzako laguntza ezinbestekoa baita une honetan.

Bestalde, animalien eskubideak, sentitzen duten izakitzat joak dagoeneko, murriztu egiten dira. Egoera hori guztia, neurri batean, Viopet programaren bidez alda daiteke; izan ere, familia boluntarioek animalia horiek hartzean baitatza.

Genero indarkeriari eta familian duen eraginari

**II.2.8. Moción de control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre el Proyecto Viopet.**

“Marta Huarte Paño, Concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de SERVICIO DE PERSONAS del presente mes, relativa a la implementación del Proyecto Viopet.

JUSTIFICACIÓN

El proyecto Viopet un programa que acoge de manera temporal a animales de víctimas de violencia machista. Esta iniciativa surge de la Dirección de Derechos de los animales y el observatorio de violencia hacia los animales en el marco del plan de contingencia contra la violencia machista ante la crisis del COVID 19 .

La red de pisos de acogida lamentablemente no cuenta con la capacidad de gestionar la estancia de los animales de compañía y por tanto es una situación que debería solventarse ya que el apoyo para las víctimas es vital en estos momentos.

Por otro lado, los derechos de los propios animales ,catalogados ya como seres sintientes, quedan mermados. Toda esta situación en parte se puede revertir con el programa Viopet que no es otra cosa que la acogida de estos animales por parte de familias voluntarias.

Todo este programa está avalado por distintas

buruzko estatistikek bermatzen dute programa hau guztia. Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen % 30ek lagungarriko animaliak dituzte; indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen % 59k etxetik irtetea atzeratu du, lagungarriko animalientzako bizilekurik aurkitzen ez dutelako. Eta emakumeen % 86k bere animaliaren aurkako tratu txarrak ere aipatzen ditu, haien aurkako indarkeria gisa.

estadísticas sobre violencia de genero y sus efectos en el ámbito familiar. El 30 % de las mujeres víctimas de violencia de género tienen animales de compañía; el 59% de las mujeres víctimas de la violencia machista retrasan su salida del domicilio por no encontrar alojamiento para su animal e compañía. Y el 86% de las mujeres refieren también maltrato a su animal, como una forma de violencia contra ellas.

Biktimak eskatzen duenean jartzen da martxan harrera protokoloa. Orduan, Poliziak jasotzen ditu animaliak. Programa honetako taldeak etxeko animaliengandik aldendu behar izan duten emakumeak lasai egotea nahi du, animaliak ondo zainduta egongo baitira eta argazkiak eta bideoak jasoko baitituzte; azken batean, oreka emozionalerako behar duten lotura izatea nahi dute.

El dispositivo de acogida se pone en marcha una vez lo solicita la víctima. Entonces, los animales son recogidos por la Policía. El equipo de este programa se encarga de que las mujeres que se han visto obligadas a separarse de sus animales domésticos tengan la tranquilidad de que van a estar bien atendidos y reciban fotos ,vídeos, en definitiva mantengan el vínculo necesario para su equilibrio emocional.

Gaur egun, estatu osoan 800 harrera etxe baino gehiago daude, eta programak are gehiago inplementatuko du harrerarako eskatzaileen kopurua.

Actualmente en todo el estado existe una red de más de 800 casas de acogida y el programa va a implementar aún más el número de solicitantes para el acogimiento.

Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen diogu Donostia abangoardiako hirien artean egon dadin, bai animalien ongizatearen bai indarkeria matxistaren biktimen ongizate psikologikoaren alde.

Instamos al Gobierno Municipal a que emprenda las acciones necesarias que permitan que Donostia forme parte de las ciudades de vanguardia en la defensa tanto del bienestar animal como el bienestar psicológico de las víctimas de violencia machista.

Honegatik guztiagatik, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1.- Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio Gizarte Eskubideen eta Agenda 2030aren Ministerioaren Viopet proiektuari atxikitzeko.

2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari

Por todo ello, presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.-El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a adherirse al proyecto Viopet del Ministerio de Derechos Sociales y Agenda 2030.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia

hertsatuki eskatzen dio Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzaren jarduteko protokoloetan sar ditzala biktimen kargura animaliak dauden kasuak, bai eta indarkeriako egoeretan esku hartzeko polizia protokoloetan ere.

insta al Gobierno Municipal a que incluya en los protocolos de actuación en el Departamento de Acción Social, los casos en los que existieran animales a cargo de las víctimas así como en los protocolos policiales de intervención en situaciones de violencia de género.

3. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio Viopet proiektua irudikatzeko kontzientziazio kanpainak egin ditzala.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que desarrolle campañas de concienciación para visualizar el proyecto Viopet.

4. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio, Animalien Eskubideen Zuzendaritzarekin batera, langile publikoentzako prestakuntza jarduerak koordinatzeko, indarkeria matxistaren biktimei laguntzearekin zerikusia duten sektoreetan.

4.-El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a coordinar, junto con la Dirección de Derechos de los Animales, actividades formativas para trabajadoras y trabajadores públicos en los sectores relacionados con la atención a víctimas de violencia machista.

5. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari lagungarriko animaliei eta indarkeria matxistari buruzko kontzientziazio jardunaldirik egiteko.

5.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que realice jornadas de concienciación sobre animales de compañía y violencia machista.

Donostian, 2021eko uztailaren 18an

Donostia, 18 de Junio del 2021

Sinatua: Marta Huarte Paño,
Elkarrekin Donostia udal taldearen zinegotzia".

Fdo.: Marta Huarte Paño
Concejala del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia".

Eztabaida hasita, Marta Huarte Paño andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Marisol Garmendia Beloqui andreak eta Reyes Carrere Zabala andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Marta Huarte Paño, D. Jorge Mota Iglesias, D.ª Marisol Garmendia Beloqui y D.ª Reyes Carrere Zabala, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**8. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**8. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**8. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
